



PRENTSARAKO OHARRA

18/06/25

Marian Turski, Auschwitz-etik bizirik urtetea lortu eban historialari judu-poloniarra Gernikako Batzarretxera itzuli da 43 urte geroago

Euskadin egiten ari dan ibilpidean, Marian Turskik, historialari eta Auschwitz-eko Kontzentrazino Esparrutik bizirik urtetea lortu ebanak, Gernikako Batzarretxea bisitatu dau, eta bertan Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Presidenteak egin deutso harrerea.

Joanna Truska-Siczek alabak eta Klaudia Siczek lobak lagunduta, Turski Bizkaiko Batzarren egoitzaren inguruetan ibili da, eta sakonago ezagutu ahal izan dau Bizkaiko historia. Lurralde eta leku hori ez jakoz guztiz ezezagunak, 1975ean historialariak bere “ilusino handietako” bat bete egin eban eta, Gernika eta bertako Batzarretxea bisitatu; bertan Jorge Oteiza eskulturagilea ezagutu eban, eta adiskidetasun sendoa sortu zan bien artean.

Marian Turskirentzat, Gernika, Auschwitz-egaz edo Ingalaterran dagon Coventrygaz gertatzen dan moduan, II. Mundu Gerran izandako “basakeriaren sinbolo” da, baina, urteak pasau ahala, bakearen sinbolo bilakatuz joan da. Bere bisitan azpimarratu dauen beste alderdi bat, herriek etorkizuneko belaunaldiei euren kultura, hizkuntza eta nortasuna transmitidutea da.

Ibilpide horren barruan, Gernikako Arbolea eta Arbola Zaharra, erakundearen bakearen sinbolo nagusiak, dagozan lekuan be egon da. Arbola biak, igaztik Poloniako Owicimen dagon kimuaren arbasoak dira. Leku horretan dagoz Auschwitz-eko kontzentrazino eremuaren lurrak, etorkizunean alkarregaz bizi ahal izatearen sinbolo. Keinu hori zuzenean eskertu deutso Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Presidenteari.

Jatorriz Poloniarra dan historialaria –1926an jaiotako judua–, Auschwitz Museoa Fundazioaren Nazinoarteko Kontsejuko kide, Wannseeko Konferentzia Zentroa gainbegiratzen dauen alkarteko Kontsejuko kide, Varsoviako Institutu Historiko Judutarraren Alkarteko presidente eta Poloniako Historia Museoko bultzatzaile eta sortzaileetako bat da, eta azken horretako Kontsejuko kide be bada. Horrez gain, hainbat kondekorazino jaso ditu, Frantziako Ohorezko Leginoa, Alemaniako Errepublika Federaleko Merituaren Ordena eta Polonia Lehengoratuaren Ordena, beste batzuen artean.

Turskik jentearentzat zabalik egongo dan –baina leku kopuru mugatua izango dauen– konferentzian hartuko dau parte bihar. Konferentzia Poloniako Kultura Institutuak, Asociación Pro Tradición y Cultura (APTCE) alkarreak, Ruta Cultural Europea Románico XXI izenekoak eta Deustuko Unibersidadeak antolatu dabe, eta arratsaldeko 19:00etan izango da, Deustuko Unibersidadeko Ellacuria Aretoan (Liburutegiko Eraikina – ECRAI). “Zergaitik hain berandu? Juduen erresistentziaren esanahia” izenburupean,

Turskik kontzentrazino eta deusestatze esparruetan bizi izan eban esperientzia kontauko dau, eta, horrez gain, jazarpenaren, erresistentziaren eta bizirik irauteko burrukaren eta hainbeste biktima gogoratuarazoteko beharraren ganean egingo dau gogoeta.

ESPERIENTZIA PERSONALA

1939an Alemaniak Polonia inbadidu ostean, 1944an Marian Turski bere familiagaz batera eroan eban Auschwitz-eko deusestatze esparrura. Bertan, bere aita eta, seguruenez, anaia nagusia, heldu eta segiduan hil ebezan. Buchenwald-eko kontzentrazino esparrura eroan eban, eta gero Theresienstadt-en libre geratu zan, Buchenwald-etik heriotzaren martxa batetik bizirik urten ostean. Gerra amaitu eta gero, Turski bere jaioterrira, Lodz-era, itzuli zan, eta han amagaz alkartzea lortu eban. Urte batzuk geroago, Halina Paszkowska 1944ko Varsoviako Altxamenduko burrukalari ohi poloniarraz ezkundu zan. Geroago, Halina soinu teknikari izan zan Poloniako zine lan askotan. Igaz hil zan. 1958an, Marian, egunerokotasuna eta eretxia lantzen dituan “Polityka” astekariaren historiari buruzko sekzinoaren buru izendatu eban; gaur egun be lan horretan jarraitzen dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

25/06/18

Marian Turski, historiador judío – polaco y superviviente de Auschwitz, vuelve a la Casa de Juntas de Gernika 43 años después

En su paso por Euskadi el historiador y superviviente del Campo de Concentración de Auschwitz, Marian Turski, ha visitado la Casa de Juntas de Gernika donde ha sido recibido por la Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui.

Acompañado también por su hija Joanna Truska-Siczek y su nieta Klaudia Siczek, Turski ha podido pasear por las inmediaciones de la sede parlamentaria vizcaína y conocer con mayor profundidad la historia de Bizkaia. Un Territorio y un espacio que tampoco le son totalmente desconocidos, pues en 1975 el historiador tuvo la oportunidad de cumplir una de sus “grandes ilusiones” visitando Gernika y su Casa de Juntas; allí conoció al escultor Jorge Oteiza con quien entabló una sólida amistad.

Para Marian Turski Gernika, al igual que Auschwitz o la ciudad inglesa de Coventry, es “un símbolo de la barbarie” que acaeció durante la II Guerra Mundial pero que, con el paso de los años, se ha ido tornando a su vez en un símbolo de paz. Otro de los aspectos que ha destacado en su visita es la importancia de que los pueblos transmitan a las generaciones futuras su cultura, idioma e identidad propios.

Como parte de ese recorrido también ha recalado en el lugar en el que se encuentran el Árbol de Gernika y el Árbol Viejo, principales símbolos de paz de la institución. Ambos son ascendentes del retoño que desde el año pasado descansa en la localidad polaca de Owicim, lugar que alberga los terrenos de los campos de concentración de Auschwitz, y que simboliza el deseo de una convivencia futura. Un gesto que el visitante ha agradecido personalmente a la Presidenta de las Juntas Generales, Ana Otadui.

El historiador de origen polaco – judío nacido en 1926, es también miembro del Consejo Internacional de la Fundación Museo Auschwitz, miembro del Consejo de la asociación que supervisa el Centro de Conferencias de Wannsee, Presidente de la Asociación del Instituto Histórico Judío de Varsovia, y uno de los ideadores y fundadores del Museo de Historia de Polonia, del cual es también miembro del Consejo. De igual manera, ha sido condecorado con varias distinciones, entre otras, con la Legión de Honor francesa, con la Orden del Mérito de la República Federal de Alemania y con la Orden Polonia Restituta.

Turski participará mañana martes, 26 de junio, en una conferencia abierta al público – aunque con aforo limitado - organizada por el Instituto Polaco de Cultura, la Asociación Pro Tradición y Cultura Europea (APTCE), Ruta Cultural Europea Románico XXI y la Universidad de Deusto, que tendrá lugar a las 19:00 en la Sala Ellacuria (Edificio de la Biblioteca-CRAI de la Universidad de Deusto). Bajo el título “¿Por qué tan tarde? El sentido de la resistencia judía”, Turski relatará su experiencia en los campos de concentración y exterminio, además de reflexionar sobre la persecución, la resistencia y la lucha por la supervivencia y el deber de recordar a tantas víctimas.

EXPERIENCIA PERSONAL

Tras la invasión alemana de Polonia en 1939, Marian Turski fue deportado en 1944 junto a su familia al centro de exterminio de Auschwitz, donde su padre y, probablemente, su hermano menor fueron asesinados nada más llegar. Tras ser transferido al campo de concentración de Buchenwald y liberado en Theresienstadt después de sobrevivir a una marcha de la muerte desde Buchenwald, Turski, acabada la guerra, regresó a su Lodz natal donde logró reunirse con su madre. Con el paso de los años contrajo matrimonio con una ex-combatiente polaca del Levantamiento de Varsovia de 1944 llamada Halina Paszkowska, futura técnica de sonido en muchas producciones cinematográficas polacas, quien murió el año pasado. En 1958 Marian se convirtió en el jefe de la sección histórica del semanal de actualidad y de opinión “Polityka”; función que desempeña hasta hoy.